

DONOSTIA KIROLAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN EKAINEKO BILERA DELA ETA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du DK-ko Artezkaritza Kontseiluaren bilera dela-eta, Udalbatzaren Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2018ko uztailaren 9ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Artezkaritza Kontseiluaren ekaineko bilerako gai zerrendaren lehenengo puntua hau zen:

Donostiako Casa Nao kaleko 3. zenbakian den eraikinean gimnasioak, zuzendutako jardueren aretoak eta espazio osagarriak jartzeko obra exekuzio kontratazio esleipena onartzea eta jarduketan berrestea.

Altzako behin-behineko kiroldetaz ari gara. KUPeko estatuarekin bat, kontratazio hau Artezkaritza Kontseiluaren eskumena zen, baina, hala ere, espedientearen hasierak eta onarpenak ez zituzten tramite horiek bete, lehendakariordeak hartu baitzituen erabaki horiek. Akatsak argitu ziren.

Kontseiluaren bilera hartan bertan, lehendakariordeak Idazkaritza Juridikoak txosten bat egin zuela adierazi zigun, eta idazkariordeak haren berri eman zuen. Kontseilukideok, ordea, ez genuen bileraren aurretik txostena jaso. Gainera, esleipenaren txosten teknikoa ere ez zitzaigun helarazi.

Delegatuak batzordean akatsak onartu zituen. Idazkaritzak txostena egun berean igorri ziola adierazi zuen eta oso lanpetuta zegoenez, ezin izan ziela kontseilukideei helarazi. Ez da onargarria halakorik gertatzea. Horregatik, mahai gainean tresnak jarri behar direla uste dugu.

Honegatik guztiarengatik, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

1-Udalbatzak irmoki eskatzen dio alkateari artezkaritza kontseiluen eta administrazio kontseiluen bileretan tresna guztiak jar ditzala bertako kideek bilera hasi aurretik informazio guztia, Idazkaritzaren txostenak barne, izan dezaten.

Donostia, 2018ko uztailaren 12an

Josu Mirena Ruiz Martin

EH Bildu udal taldeko zinegotzia